


## BANAKETA KANALAK

Gure produktua, hasieran, lokal txiki batean egin eta biltegiatuko da, oraindik dendarik ez da egongo. Gure ideia da webgune bat izatea eta produktua hor saltzea, horrela interneta duen orok eskuragarri izango du. Webgunean bastoiaren ezaugarriak egongo dira azalduta, eta erosteko orduan kolorea aukeratu ahal izango duzu. Behin esakera egiterakoan zure kokalekua idatziko duzu eta zugandik hurbilen dagoen jasotzeko lokaletan utziko ditugu esakariak. Ordaintzerakoan ordainketa metodoa ere aukeratu ahal izango duzu, paypal bidez, kreditu txartelarekin...



Webguneaz eta iragarkietaz gainera, produktua saltzeko, gure erakunde laguntzaileekin hitz egingo dugu (ONCE, UMC, EBU...). Haiek itsuei laguntzen bai diete haientzako aproposak diren produktuak non erosi edo alokatu aholkatzen, horregatik gurekin bat eginez gero gure produktua aholkatuko dute eta ondorioz bezero gehiago emango dizkigute. Haien laguntza eskertzeko deskontuak egingo dizkiegu elkarteei, haiek gure produktuak izan dezaten behar dutenei eman diezaieten.

Bi baliabide horiek izango dira non erosteko kanalak, eta horrez gain, gure publisitatzeko gure produktua (nahiz eta itsuak ezin ikusi) instagrameko kontu bat egingo dugu, hor erakusteko gure produktua, sare sozialak impaktu asko dutelako, gauza on bat da gure modernizatzea, horrela ere gure bezeroak gauzak eta dudak galdetu ahal izango dute.

Instagram aparteaz twitter, facebook eta beste hainbat sare sozialetan egongo gara eskuragarri. Gure ustez gaur egun oso garrantzitsua da interneten inpaktu handi bat eukitzea, eta hori lortu nahi dugu.



Bezero haiek lortzeko eta erakartzeko iragarkiak egin beharko ditugu, iragarkiak telebistan eta irratan aterako ditugu, ahalbeste bezerori ailegatzeko. Kaletik ere gure produktuak iragartzen saiatuko gara, baina ez da hain erraza izango, beste aldetik enpresa handiekin eta denda lokalekin hitz egingo dugu, horrela akordio batera heltzeko eta gure produktua salmentan jartzeko.